

## **ERLIJOTASUNA ARAMAIOKO HARANEAN ORAIN DELA EHUN URTE**

“Emaidazu zazpi urteko haurra eta gero egin berarekin nahi duzuna”. Ez dakit non irakurri dudan esaera hau. Edonola ere psikologiak oso-osoan onartzen du baieztapen hau. Egia esan, haurrek oso moldakorrak eta aldakorrak izan ohi dira.

Paisaiak, kultura eta erlijio giroak, gurasoen larrialdi eta pozoaldiak, erlijioa sentitu eta bizitzeko duten era, guzti horiek haurraren bihotzean grabatuta geratzen dira. Lehen urteetako bizipenek zeharo baldintzatuko dituela beraren nortasuna eta hartuko dituen bideak esan daiteke. Graziaren indarrak ez ditu itoko eta eragotziko inkontzientearen agerpenak.

Horregatik aztertu nahi dugu idazlan honetan nola bizi izan zuen erlijiotasuna, hau da, Aramaioko haranean izandako erlijio-bizitza sentitzeko eta agertzeko era, Aita Gabriel Jauregik aurretikoengandik jasota bizi izan zuen erlijio-bizipen sakona ezagutzeko.

### **I.- Noiz sartu zen kristautasuna haranean.**

Euskal gizakia, direla gutxienez ehun eta berrogeita hamar mila urteetan zehar Euskal Herriko gaur egungo lurraldean bizi izan da. Garagartzan, Aramaioko muga ondoan, Lezetxiki haitzuloa dugu; bertan Erdi Paleolitikoko gizakia bizi izan zen. Haitzuloan aurkitutako hondarrek eta lekuko orografiak, orduko gizakiaren jardun nagusia ehiza izan zela, geroago abereak zaintzera jo zuela eta, azkenean, aurreko jarduna bertan behera utzi gabe, nekazaritza lanari ekin ziola adierazten digute.

Giza-bizitzaren ezaugarriak dauden lekuetan, era berean, erlijio-bizitzaren ezaugarriak ere agertu izaten dira. Hala ere, ez da geografia eta industria beste aztertua izan Euskal Herriko lehen gizakien erlijiotasuna, lehen euskaldunen erlijio-hondarrek gaur egungo bizitzan eta tradizioetan bizi-bizirik dirauten arren.